


### Landetxea

Landa-eremuan, lurjabe handiek luxuzko etxeak zituzten, *villae* zirelakoak, hiriko bizimoduari zegozkion erosotasun guztiez horniturik zeudenak. *Villae* hori etan zerbitzari ugarik egiten zuen lan nekazaritzan, langileburu edo administratzaile baten agindupean. Funtsean, *villae* haiek bi zatitan banaturik zeuden: bizilekua eta nekazaritzarako zatia. Bi-biak dituzu irudi honetan; saka ezazu irudiotan bata eta bestea bereizteko.



Hau zen egoitzarako zatia, jabeen etxebizitza, eta *villae*ko alderik luxuzkoena. Bertako jaunak eta haren familiak erosotasun guztiak zituzten eskura: lorategian patxadaz pasea zitezkeen, terma partikularretan baina zitezkeen... *Villae* ba tzuek pentsa daitezkeen aurrerapen eta luxu guztiak zituzten, nahiz eta beste zenbait askoz maila apalagokoak izan.



Nekazaritzarako zatian, laborantza eta abeltzaintzako instalazioak zeuden. *Villae* haietan landa ustiatzen zuten, eta, horretarako, biltegiak, tailerrak eta nekazaritza-produktuak ek oizteko instalazioak behar zituzten. Batzuetan, instalazio industrialagoak ere aurki zitezkeen. Esaterako, Logroñoeko La Iglesia - Las Pilas del Caminoko landa-bizigunean, Arabako Biasteriko muinoaren oinetan, bazen labe bat zeramikazko materiala egiteko; handik ateratako piezak eraikuntzetako berotze-sistemetan erabiltzen zituzten.

Euskal Herrinari dagokionez, *villae* direlakoan ustiapen-sistema hori Nafarroako Erriberan zabaldu zen gehien. Arellanoko *villaea*, Eka ibaiaren ibarrean, adibide egokia da. Ledeak, Faltzes eta Soto del Ramalete-ko *villae*ak Euskal Herriko beste adibide nabarmen batzuk dituzte, Nafarroan horiek ere. Nolanahi ere, ez duzu pentsatu behar landa-eremu osoa *villae* handien inguruan antolatua zegoenik; bizigune gehienak txikiagoak ziren, hala nola etxaldeak.

**Ledeak:** Ledeako *villaea* Iruñetik hego-ekialdean zegoen, hiriburutik 25 kilometro ingurura. Irunberriko arrolako ahoaren aurrean kokaturik, arrolaren gaineko bista ederrak zituen. K.o. IV. mendean eraiki zuten, Goi-Inperioko nekazaritza-ustiapen baten gainean. Bertako instalazioen artean, egoitza-aldea peristilodun *domus* bat zen, hau da, gelak kolomadun patio baten inguruan antolaturik zeuden. Gainera, badira terma batzuk ere ekialdean; lorategidun urmael bat ere bai; baita aletegiak eta ardo-biltegiak ere.

**Soto del Ramalete:** Soto del Ramaleteko *villaea*, Nafarroako Castejónen zegoen. Nekazaritzari dagokionez, biltegiak, ukulak eta tailerrak zeuzkan; hiri-aldean, ordea, gelak, termak (*caldarium*, *tepidarium* eta *frigidarium* izeneko gelak) eta mosaikoak.

**Etxaldea:** *Villae* izen historikoak guztiz errealitate desberdinak bildu dituzte bere baitan: luxuzko etxebizitza duten landetxeak, hiriko erosotasun guztiekin, edota askoz maila apalagoko etxaldeak. Azken horien artean, batzuk nekazaritzako aldea bakarrik zuten (biltegiak, tailerrak, ukulak...), inolako luxurik gabekoak: etxalde soilak baitziren.